

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5491

AGINDUA, 2022ko abenduaren 19koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak egiteko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Akordioak enplegu publikoaren eskaintza onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratudunentzat.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez onartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetako enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak, eta, 1.2 oinarrian xedatuta dago ezen deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren bidez arautuko direla hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak eta, halaber, zehaztuta dago zer eduki izan behar duten oinarriok, hau hain zuzen: zenbat plazatarako deialdia egingo den, nola banatuko diren hizkuntza-eskakizunen eta sarbide-modalitatearen arabera, zer epetan aurkeztu ahal izango diren eskabideak, zenbatekoa izango den inskribatze-tasa langileak hautatzeko deialdietan, zer titulu beharko den sartzeko, zer merezimendu baloratuko diren eta zer baremo baliatuko den, zer data izango den erreferentzia euskara-ezagutzak egiaztatzeko, zer betekizun espezifiko izango duten deialdiko lanpostuek, zein izango diren gai espezifikoak enplegua finkatzeko prozesu berezietan, eta emakumeen lehentasunaren klausula aplikatuko den ala ez.

Agindu honen bidez, enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako deialdia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuak betetzeko. Era berean, prozesuko oinarri espezifikoak ere onartzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, aintzat hartuta Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluaren langileen hautaketaz xedatutakoa, eta bat etorri legez horrek 6.1.i) artikuluan emandako eskudantziekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan ezarritakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarme-

nean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostu hauetarako, eta adieraztea zenbat plaza eta zer eranskin dagokion lanpostu bakoitzari:

Lanpostua	Lanpostuak, guztira	Eranskina
Elektrikaria	1	I
Autopsietako laguntzailea	9	II
Baliabide Orokorren teknikaria (Bilbao eta Donostia)	2	III
Baliabide Orokorren teknikaria (Lakua)	2	IV
Espetxeko gizarte-langilea	7	V

Agindu honen bidez iragartzen diren hautaketa-prozesuak egiteko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Agindura joko da, agindu horren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Bigarren artikulua.– Onartzea agindu honen I. eranskinetik V. eranskinera jasotzen diren oinarri espezifikoak.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2023ko urtarrilaren 11tik 2023ko otsailaren 10eko 14:00etara.

Laugarren artikulua.– Ezartzea euskara-ezagutzak 2023ko abuztuaren 1a baino lehenago egon behar duela egiaztatuta.

AZKEN XEDAPEN

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 19a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

I. ERANSKINA

ELEKTRIKARIAREN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO
OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Elektrikariaren lanpostu 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 11,72 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, lanpostu horietan sartzeko, Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikariaren titulua eskatzen da, edota titulu horren baliokideak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira elektrikarien C1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, harremana izan funtzionario-izaerakoa nahiz lan-kontratukoa.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hila-betik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko elektrikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Bat etorritz enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboen Hitzarmeneko lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri oroko-

rretako 9.5 atalean xedatutakoarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan egindako zerbitzuetan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkion eginkizunetan eta zerbitzuetan horiei atxikitako langileek Estatuko Administrazioan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak.

13 puntu, sartzeko alegatutakoaz bestelako titulu bakoitzeko; gehienez 25 puntu emango dira titulu hauengatik:

- Sistema Elektroteknikoetako eta Automatizatuetaiko goi-mailako teknikaria.
- Mantentze Lan Elektronikoetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 10 punturekin baloratuko dira, 4 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Internet oinarritzkoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarritzko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

- C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.
- 4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegia ordezkaturata baitaude elektrikariaren lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

II. ERANSKINA

AUTOPSIETAKO LAGUNTZAILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO
PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Autopsietako laguntzaileen 9 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 4.

1. hizkuntza-eskakizunarekin: 5.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 11,72 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira autopsietako laguntzailearen lanpostuetan sartzeko eskatutako tituluak:

- Laborategiko Eragiketetako teknikaria, eta horren baliokideak.
- Eskola-graduatu edo baliokidea, eta laborategiko zeregin osagarrietan gutxienez urtebeteko esperientzia.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira laborategiko zeregin osagarriak betetzeko C2 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, harremana izan funtzionario-izaerakoa nahiz lan-kontratukoa.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hila-betik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berriaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzar-meneko autopsietako laguntzaile lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hila-betetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-politsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1.– Tituluak, gehienez 20 puntu.

10 puntu titulu hauetako bakoitzeko: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Laborategi Kliniko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria, Kimika eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria, Farmaziako Produktuen, Produktu Bioteknologikoen eta Antzekoen Fabrikazioko goi-mailako teknikaria, eta horien baliokideak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

c.2.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako autopsietako laguntzaileen lan-politsetan egoteagatik (hori da azpiatal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Internet oinarritzkoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

– 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkaturik baitaude autopsietako laguntzaileen lanpostuetan, eta lehentasuna emango zaie.

III. ERANSKINA

BALIABIDE OROKORREN TEKNIKARIEN (BILBAO ETA DONOSTIA) ENPLEGUA
FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Baliabide Orokorren teknikarien 2 lanpostu (Bilbao eta Donostia) eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, eta honela banatuta:

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1.

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plaza eskuratu nahi dutenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrek bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Baliabide Orokoren teknikariaren lanpostuetan (Bilbao eta Donostia) sartzeko eskatutako titulazioak:

- Ikus Entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko goi-mailako teknikaria.
- Ikus Entzunezkoetarako eta Ikuskizunetarako Soinuko goi-mailako teknikaria.
- Irudia Argiztatzeko, Hartzeko eta Tratatzeko goi-mailako teknikaria.
- Ikus Entzunezkoen eta Ikuskizunen Produkzioko goi-mailako teknikaria.
- Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria.
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

Baita haien baliokide guztiak ere.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira Komunikazio eta Soinuko edo Informatikako lanbide-arloko goi-mailako teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, harremana izan funtzionario-izaerakoa nahiz lan-kontratukoa.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoak.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko Baliabide Orokorraren teknikariaren lanpostuetan (Bilbao eta Donostia) emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak, hautaketa-prozesuetan parte hartzea eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1.– Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Ikus Entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko goi-mailako teknikaria.

– Ikus Entzunezkoetarako eta Ikuskizunetarako Soinuko goi-mailako teknikaria.

– Irudia Argiztatzeko, Hartzeko eta Tratatzeko goi-mailako teknikaria.

– Ikus Entzunezkoen eta Ikuskizunen Produkzioko goi-mailako teknikaria.

– Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria.

– Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

– Sistema Elektroteknikoetako eta Automatizatuetako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren web-gunean kontsulta daiteke (<https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>).

c.2.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako lan-poltsan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Internet oinarrizkoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.
- Microsoft Access 2010.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

- C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

4.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkaturik Baliabide Orokorren teknikariaren lanpostuetan (Bilbao eta Donostia), eta ez zaie lehentasunik emango.

IV. ERANSKINA

BALIABIDE OROKORREN TEKNIKARIEN (LAKUA) ENPLEGUA FINKATZEKO
SALBUESPENEZKO PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Baliabide Orokorren teknikarien (Lakua) 2 lanpostu eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Baliabide Orokorren teknikariaren lanpostuetan (Lakua) sartzeko eskatutako titulazioak:

- Ingeniaritza Informatika Arloan.
- Informatikako Lizentzia.
- Elektronikako Ingeniaritza.
- Telekomunikazio Ingeniaritza.
- Informatikako Gradua.
- Softwarearen Ingeniaritzako Gradua.
- Zibersegurtasunaren Ingeniaritzako Gradua.
- Konputagailuen Ingeniaritzako Gradua.
- Konputazioko eta Adimen Artifizialeko Gradua.
- Telekomunikazio Teknologiarene Ingeniaritzako Gradua.
- Telekomunikazioaren Ingeniaritza Elektronikoko Gradua.
- Soinu eta Irudi Ingeniaritzako Gradua.
- Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua.
- Komunikazioen Ingeniaritza Elektronikoko Gradua.
- Ingeniaritza Elektronikoko Telematikoko Gradua.
- Ingeniaritza Teknikoa Informatika Arloan.
- Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa.
- Informatikako Diplomatura.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

– B gidabaimena.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar dira.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizuna eta derrigor-tasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira Baliabide Orokorren teknikarien A taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, harremana izan funtzionario-izaerakoa nahiz lan-kontratukoa.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hila-betik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzar-meneko Baliabide Orokorren teknikariaren lanpostuetan (Lakua) emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hila-betik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak, hautaketa-prozesuetan parte hartzea eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1.– Tituluak, sartzeko alegatutakoez bestelakoak, gehienez 20 puntu.

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko:

031201	Datu-baseen diseinua eta administrazioa
061301	Softwarearen eta aplikazioen garapena
061304	Adimen artifiziala
061901	Informatika
071401	Konputagailuen ingeniari-tza
071403	Telekomunikazio-ingeniaritza
071402	Soinuaren eta irudiaren ingeniari-tza
071405	Ingeniaritza elektronikoa

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2.– Gehienez 24 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako Baliabide Orokorren teknikariaren lanpostuan lan-kontratudun finko edo karre-rako funtzionario izateko 2000. urteaz geroztik (urte hori barne) egin diren hautaprobak gaindituta izateagatik:

- Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.
- Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Baliabide Orokorren teknikarien lan-politsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Internet oinarritzkoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

- Internet aurreratua.
- Microsoft Access 2010.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarria baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Euro-pako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

- C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

5.– Lehenetasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi baitaude ordezkaturik Baliabide Orokorren teknikariaren lanpostuetan (Lakua), eta lehenetasuna emango zaie.

V. ERANSKINA

ESPETXEKO GIZARTE-LANGILEEN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO
PROZESUKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deialdiko plazak.

Espetxekeo gizarte-langilearen lanpostu 7 eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorren 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira espetxekeo gizarte-langilearen lanpostuetan sartzeko eskatutako titulazioak:

- Gizarte-laneko gradua.
- Gizarte-lanean diplomatura/Gizarte-Laguntzailea.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

- B gidabaimena.

Aipatutako betekizunak merezimenduak alegatzeko izapidetan deklaratu behar dira.

Eskaintako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorren 12.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia–, honako hauek zehazten dira: zein den lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea eta zentro organikoa, zein herritan dagoen kokatuta, zer ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data dituen, eta zer betekizun espezifiko bete behar diren lanpostua betetzeko.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikotan espetxekeo gizarte-langilearen lanpostuetan emandakoak, harremana izan funtzionario-izaerakoa nahiz lan-kontratukoa.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko espetxeko gizarte-langilearen lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Bat etorri enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmeneko lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorretako 9.5 atalean xedatutakoarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan egindako zerbitzuetan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegokari eskualdatu zaizkion eginkizunetan eta zerbitzuetan horiei atxikitako langileek Estatuko Administrazioan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak.

10 puntu, sartzeko alegatutakoaz bestelako titulu bakoitzeko, gehienez 25 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (lizentzia, gradua eta diplomatura):

031301	Psikologia
011101	Pedagogia
042101	Zuzenbidea
011901	Gizarte-hezkuntza

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 10 punturekin baloratuko dira, 4 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzakoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzakoa.
- Internet oinarritzakoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzakoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.
- Microsoft Access 2010.

IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu beharko da moduluak gaindituta daudela, 9.8 oinarri orokorrean adierazi bezala. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarria baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Ingelesa, alemana eta frantsesa jakitea baloratuko da, eta gehienez 5 puntu emango dira Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauen eta baremazio honen arabera:

- C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) ezartzen du zer hizkuntza-titulu eta -ziurtagiri diren baliokideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuak hautatzeko eta betetzeko prozesuetan.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.
- 3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko aipatutako artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta espetxeko gizarte-langilearen lanpostuetan, eta ez zaie lehentasunik emango.